

PRENTSA TXOSTENA

Barakaldon 2015ko uztailaren 1ean

LANEKO ISTRIPUAK ETA LANEKO GAIXOTASUNAK EAEn

2014. urtea TXOSTENA

- LANEKO ISTRIPUAK**

2014an, lanaldian gertatutako eta lan-agintaritzari jakinarazitako bjadun lan-istripuen kopuru osoa 24.602 izan zen. 2013an 24.318 istripu izan ziren. Bjadun 284 istripu gehiago izan ziren lanaldian eta hortaz, %1 igo da kopurua 2013arekin alderatuta. Inzidentzia-tasa, bere aldetik, apur bat igo da, 35,28tik, 35,65ra; istripua jazo duten bjadun langileak 1000 langileko.

“In itinere” hau da laneko joan etorrietan jazotako bjadun istripuen kopuru osoa 3.225ekoa da; aurreko urtean baino 84 gutxiago. Inzidentzia-tasa jaitsi egiten da 4,80tik 4,67ra 2014an.

Pertsonaren heriotza eragin duten istripuei dagokienez, laneko istripuen tramitaziorako sistemak, IGATT delakoa, 30 hildako pertsona jasotzen ditu 2014an; aurreko urtean, 2013an izandako kopuru bera. Hauetatik 28 lan lekuan izan ziren eta 2 laneko joan etorrian, in itinere. Lan lekuan hildako 28 pertsona horietatik 10, modu ez traumatikoan hil dira; hau da, lanean zeudela bihotzekoak edo garuneko ez-behar baskularren baten ondorioz edota beste patologia ez traumatiko batengatik hildako pertsonak dira.

Lanaldiko/ In itinere bjadun lan istripuen kopurua, larritasunaren arabera. EAE 2013-2014

	Lanaldikoa		Itinere		Aldakuntza osoa (%)	
	2013	2014	2013	2014	2013-2014	
					JL	Itinere
ARINA	24.154	24.440	3.283	3.207	1%	-2%
LARRIA	139	134	21	16	-4%	-24%
HILGARRIA	25	28	5	2	12%	-60%
Guztira	24.318	24.602	3.309	3.225	1%	-3%

“In itinere” hau da laneko joan etorrietan jazotako bjadun istripuen kopuru osoa 3.225ekoa da; aurreko urtean baino 84 gutxiago. Inzidentzia-tasa jaitsi egiten da 4,80tik 4,67ra 2014an. Larritasunaren arabera begiratu ez gero, 3.207 istripu arin, 16 larri eta 2 hilgarriak izan dira. Aurreko urtearekin alderatuz, %2 jeitsi da istripu arinen kopurua, %24 larriena eta %60 hilgarriena.

Lurraldeka begiratu ez gero, EAEn 2014an lanaldian izandako istripuen %1ko igoera Araban jazotako istripuen gorakadari zor zaiola ikusten da, izan ere, Bizkaian et Gipuzkoan istripu kopurua ia berdina izan baita.

Lanaldiko/ In itinere bjadun lan istripuen kopurua larritasunaren eta lurralderaen arabera 2014.

	2014								Aldakuntza osoa (%) 2013-2014	
	Lanaldian				Itinere				Lanaldian	Itinere
	Arina	Larria	Hilgarria	Guztira	Arina	Larria	Hilgarria	Guztira		
Araba	4.678	18	5	4.701	631	3	0	634	5%	7%
Bizkaia	12.122	61	14	12.197	1.608	7	1	1.616	0,1%	-9%
Gipuzkoa	7.640	55	9	7.704	968	6	1	975	0,4%	3%
Guztira	24.440	134	28	24.602	3.207	16	2	3.225	1%	-3%

Bizkaian lanerako joan etorrietan, “in itinere” deiturikoetan, istripuek behera egin dute (-%9), emaitza bestelakoa izan da Araban eta Gipuzkoan (%7 eta %3 hurrenez hurren). Inzidentzia indizeetan aldaketa bera nabari da.

Ekonomia sektoreei erreparatuz, eraikuntzaren sektorean lanaldian izanda istripuak apur bat jaitsi egin dira %1. Gainontzeko hiru sektoreetan istripu kopuruak gora egin du. Industrian eta zerbitzu sektorean modu arinean (%2 eta %0,4 hurrenez hurren). Gehiago hazi dira lehenengo sektoreko istripuak %15. Esan bezala, orohar, istripuak %1 hazi dira urte osoan.

In itinere gertatutako istripuetan, portaera desberidna izan da. Gutxitu egin dira industria, eraikuntza eta zerbitzu sektoreetan, eta %3 hazi dira lehenengo sektorean.

Lanaldian/Itinere bajadun istripuen kopurua, larritasunaren eta sektorearen arabera. EAE, -2014.

	2014								Aldakuntza osoa (%)	
	JL				Itinere				2013-2014	
	Leve	Grave	Mortal	Total	Leve	Grave	Mortal	Total	JL	Itinere
1.Agricultura, Ganadería y Pesca	628	12	4	644	10	0	0	10	15%	43%
2.Industria	8.660	41	4	8.705	516	4	1	521	2%	-8%
3.Construcción	2.495	19	4	2.518	122	0	0	122	-1%	-5%
4.Servicios	12.657	62	16	12.735	2.559	12	1	2.572	0,4%	-1%
Total	24.440	134	28	24.602	3.207	16	2	3.225	1%	-3%

Lanaldian izandako istripuak sektore bakoitzean lanean ari den langile kopuruarekin erlazionatzerakoan (inzidentzia indizea) sektore bakoitzak garapen desberdina izan duela ikusten da. Lehenengo sektorean inzidentzia indizea %14 hazi da (9 istripu gehiago mila langileko). Zerbitzu sektorean %1 jaitsi da eta industria eta eraikuntza sektoreetan inzidentzia indizea %4 hazi da bi kasuetan. Dena den, eraikuntza sektoreak erregistratu diren istripu kopurua jaitsi egin bada ere, honek zera esan nahi du: behargin gutxiago ari dela sektore honetan lanean.

Inzidentzia indize altuena eraikuntzan (75,94 mila langileko) eta lehenengo sektorean (72,70) eman da, industria ondoren (58,1) eta azkenik zerbitzuak (25,61). Lanaldian izandako istripu larri eta hilgarri guztian aintzat hartuta, lehenengo sektorea da inzidentzia indize altuena duena, eraikuntza sektorea dator ondotik.

Adin tarteei begiratuta, 44 urte baino gehiago duten langileak eta 25 urtetik beherakoak dira lanean istripu gehien izan dutenak. Dena den, istripu hilgarrietan inzidentzia indize altuena 45 urte eta gehiago duten pertsona taldeari dagokio.

In itinere izandako bajadun istripuen kasuan, 25-44 urte adin tartean dauden pertsonak izan dute istripu gehien (1.698); inzidentzia indize handiena aldiz, adin tarte gazteenari dagokio, 25 urtetik beherakoak, 6,6 istripu 1.000 langileko.

Generori dagokionez, lanaldian izandako bajadun istripuen inzidentzia indizea handiagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino (49,09 istripu gizonezkoen kasuan mila langileko eta 20,17 emakumezkoen kasuan mila langileko). Den den, in itinere izandako bajadun istripuetan emakumezkoen zifrak handiagoak dira: bai istripu kopuruaren kasuan (1.894 emakumezkoen kasuan eta 1.331 gizonezkoen kasuan) eta baita inzidentzia indizearen kasuan ere (5,9 mila langileko eta 3,6 mila langileko).

Enpresaren kontratazio ereduaren arabera. Lanaldian istripua izan duten langileen %69 eta in itinere istripua izan dutenen %73,6 enpresa nagusiaren zuzeneko langileak dira. Lanaldian izandako istripuen %8 kontraten langileak dira eta %1,9 aldi baterako enpresako langileak.

Lanaldian/Itinere bajadun laneko istripuen kopurua, adina eta kontratu motaren arabera. EAE, 2014

	Lanaldian				Itinere			
	A*	L*	H*	Guztira	A*	L*	H*	Guztira
1.Mugagabea lanaldi osorako	15.091	74	16	15.181	1.862	12	1	1.875
2.Mugagabea aldi baterako	1.284	5	-	1.289	284	-	-	284
3.Mugagabea fijo/etenduna	387	-	1	388	55	-	-	55
4.Aldi baterako lanaldi osorako	5.883	37	7	5.927	684	2	1	687
5.Aldi baterako aldi baterako	1.349	7	2	1.358	319	2	-	321
6.Daturik ez	446	11	2	459	3	-	-	3
Guztira	24.440	134	28	24.602	3.207	16	2	3.225

A* Arina L* Larria H* Hilgarria

Lesio mota

Lanaldiko istripuetako lesio-mota ohikoena, zaintiratuak, bihurdurak eta diskazioak dira (istripuen %39,7). %16,3 azaleko lesioak izan ziren eta %10,8 zauri irekiak.

Istripuaren tokia eta eguna

Bajadun istripuen %11,6 "in itinere" erakoak dira, eta %77,6 lan lekuan edo ohiko lan tokian gertatzen dira. Hilgarriak izan diren istripuen %27 beste lantoki batean gertatu zire. Bajadun istripu gehienak astelehenetan gertatu dira, %22,4 eta astea aurrera doan heinean kopuruak behera egiten du, ostiraletan %14,8 eta larunbatetan %5,4 eta igandetan %3,5

- **LANEKO GAIXOTASUNAK**

2014, urtean EAEn 2013an baino laneko gaixotasun gutxiago deklaratu dira (%10). Kasu berrien inzidentzia %14 jaitsi da.

2014an bajarik gabeko gaixotasunek behera egin dute eta %6 hazi dira bjadunak. Baja ematea askoz maizago gertatzen da pertsona berriz gaixotzen den kasuetan hasierako aldietan baino.

Laneko gaixotasunagatik baja aldiaren iraupenak beherazko joera jarraitzen du, batez ere hasierako aldiean. Baja aldiaren iraupenean eragin handiena duen faktorea gaixoasun mota da.

Gipuzkoako industria sektoreko enpresak dira laneko gaixotasunen kasuan inzidentzia altuena dutenak. Baina kasu larrietan, laneko baja behar izan dutenen kasuan, inzidentzia altuagoa da Bizkaiako sektore industrialeko enpresetan.

Laneko gaixotasun berrietan inzidentzia tasa altuena duten bost ekoizpen jarduerak hauexek: "Egur eta kortxoaren industria", "metalurgia", "produktu metalikoen ekoizpena, makinaria eta ekipoak salbu", "hondakinak jaso eta tratatzea", "materiak eta ekipo elektrikoaren ekoizpena" eta "enpleguarekin zerikusia duten aktibidadeak".

Belarriko patologia profesionalak gutxitu dira (zaratak eragindako hipoakusia) eta gora egin dute muskulu-tendoiaren trastornoek. Gora egin du bestalde, infekzioek eragindako gaixotasunen kasuek, Bizkaiako hondakinen tratamendurako lantoki batean, Q sukarrak eragindako zoonosi agerraldia dela eta

Laneko minbizien deklarazioak gora egin du. Aditzera emandako 12 minbizetatik 9 asbestoak eragindakoak dira.